

ARAUDIA

GazteKLUBA Bilboko Udalak 12 eta 17 urte arteko bilbotar gazteei eskainitako jarduera-programazioa da.

2023ko irailetik 2024ko ekainera bitarteko ikasturtean 2006 eta 2011 urteen artean jaiotako pertsonak parte hartu ahal izango dute.

Jarraian azaldutako arauak Gazteria eta Kirol Sailak antolatutako jardueretan izena emateko prozesuari buruzkoak dira. Beste Udal sail batzuk antolatutako jarduerak berezko araudia izango dute.

IZENA EMATEA ESKATZEN DUTEN JARDUERAK

1. #GazteKLUBA programazioko jarduera guztietan izena ematea beharrezkoa da. BilbaoGazte webgunean edo Gaztegunetan bertan kontsulta daiteke nola egin. Bilbon errolatuta egon behar da. Datu hori Gazteria eta Kirol Arloak egiaztatuko du.
2. Lekuen esleipena heldu ahalako ordenaren arabera egingo da, lekuak bete arte.
3. Izena emateko eskabidean gehienez hiru lagunek izena eman dezakete, taldeko izen-ematea osatuta. Eskabidean agertzen diren guztiek ados egon behar dute izen-ematearekin.
4. Izena emandakoek gehienez 2 eguneko epea izango dute (48 ordu konfirmazioa heltzen den momentutik) aktibitatearen izen-emate kostua ordaintzeko. Horrela egin ezean, lekua galduko dute.
5. Izena emandakoak aparteko beharrianak edukiz gero, ezinbestean txosten medikoak aurkeztu behar dira.
6. Lekuren bat hutsik egonez gero, itxaron-zerrendaz baliatuko gara horiek betetzeko.
7. Matrikularen dirua jarduera hasi aurretik behar bezala justifikatutako osasun arloko arrazoiengatik bakarrik itzuliko da.
8. Jardueretan izena emateko eta parte hartzeko, honako arauak eta ekintza bakoitzarenak onartu behar dira. Parte-hartzaileek jokabide egokia eduki behar izango dute eta jardueraren arduradunek emandako azalpenak jarraitu. Norbaitek gizalegez jokatu ezean, jardueratik kanporatua izan daiteke eta #GazteKLUBA programaren hurrengo ekintzetan parte hartzeko debekua ezarri ahal izango diote.
9. Jarduera-programak data-, ordutegi- edo leku-aldaketak izan ditzake, bai antolakuntza- edo klimatologia-arrazoiengatik.
10. Arauak ezartzean sortu litezkeen zalantzak Gazteria eta Kirol Sailak ebatziko ditu.